

PLANGINTZA ESTRATEGIKOA EGITEKO ORIENTABIDE-GIDA

SARRERA

Dokumentu hau egin da plangintza estrategikoa sustatzen duten sailen eskura gida sintetiko bat jartzeko, plangintza hori egiteko lana orientatzeko balio dezan, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Akordioan aurreikusitako edukietan oinarrituta.

PLANGINTZAREN KONTZEPTUA

Plangintza, funtsean, prozesu instrumental gisa deskriba daiteke. Prozesu horren bidez, eskura dauden baliabideak eta eskura izango direnak antolatzen dira, etorkizunean lortu nahi diren helburuak lortzeko. Plangintza-prozesu bat plan bihurtzen da, etorkizuna izango denaren hurbilketa eginez, eta, hipotesi jakin batzuen gainean, lortu nahi diren helburuak lortzeko ahaleginak zein alternatibaren aldeko hautura bideratzen den kontuan hartuta. Azken batean, nahi den etorkizuna eraikitzeko baliabideak jartzea da helburua, eta ez etorkizun hori asmatzea.

Plangintza estrategikotzat jotzen da Jauriaritzak ezarritako lehentasunezko premiei erantzuten diena, eta organo sustatzaileaz kanpoko beste sail batzuek eta, hala badagokio, planifikatutako eremuan eskumenak dituzten beste erakunde batzuek parte hartzea eskatzen duena.

GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIARI BURUZKO ORIENTABIDEAK

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren arabera, plangintza estrategikoa egitean honako orientabide hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Plan estrategikoen diseinuak aurretiazko hiru eskakizun hauei erantzun behar die:
 - Gobernu Programan politika publiko bakoitzerako ezarritako edukiei erantzutea
 - Nazioarteko eta Europako politikekin bat egitea, bere jardun-eremuan.-
 - Gobernuaren aurrekontu-programazioarekin eta plangintza ekonomikoarekin bat etortzea.

- b) Plan estrategiko bakoitzaren abiapuntuko oinarriak kontuan hartu beharko du, hala badagokio, aurreko aldirian inplementatutako plana, behar bezala ebaluatua.

- c) Plangintza estrategikoaren indarraldia bat etorriko da, ahal den neurrian, Europako edo, hala badagokio, nazioarteko plangintza-mugarriekin.

- d) Plan estrategiko bakoitza egiteko eta ezartzeko, sail bakoitzaren berezko zerbitzuak erabiliko dira lehentasunez, eta, beharrezkoa izanez gero, kanpoko zerbitzuen laguntza izango da elementu osagarri gisa edo laguntza emateko idazkaritza tekniko gisa.

- e) Planak adierazle homologagarrien sistema bat jasoko du, ezarritako politikaren emaitzen urteko ebaluazioa egiteko aukera emango duena, eta, alderdi nagusiei dagokienez, Gobernu Programa gauzatzearen jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin bat etorriko denairenak. Plan orok bere betetze-mailaren amaierako ebaluazio-txostena jaso beharko du, bai eta, lau urtetik gorako iraupena duten planen kasuan, jarraipenerako tarteko txostenak ere.

PLANGINTZA ESTRATEGIKOA. EDUKIA

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiarekin bat etorritik, sail sustatzaileak Plan Estrategikoaren proposamenaren edukia egingo du, honako alderdi hauek erreferentzia gisa hartuta:

- 1) *Sarrera*: plan estrategikoak ase beharreko premien deskribapena eta Gobernu Programan definitutako ardatz, konpromiso eta helburuekin duen lotura.
- 2) *Egoeraren diagnostikoa*: egoeraren deskribapena eta haren bilakaeraren ikuspegia, unera arte inplementatutako politika publikoaren ebaluaziotik abiatuta.
- 3) *Egiturazko edukia*: printzipioak. Helburuak eta ardatz estrategikoak.
- 4) *Garatu beharreko ekintzak*: ezarritako helburuak betetzeko garatu beharreko ekintzak eta ekimenak islatzea.
- 5) *Plangintza ekonomikoa*: plana gauzatzeari lotutako baliabide ekonomikoen agertokia, indarrean egongo den aldia.
- 6) *Erakundeen arteko harreman-eskema*: bai hura garatzen parte hartzen duten beste sail eta administrazio publiko batzuekin, bai eragile ekonomiko eta sozialek parte hartzeko formulekin.
- 7) *Gobernantza-eredua*: barne-antolaketa eta giza baliabideen eta baliabide materialen zenbatespena.
- 8) *Jarraipen- eta ebaluazio-sistema*: strategiaren egokitasuna eta garatutako neurriak kontrastatu ahal izateko adierazle-sistema identifikatzea. Nolanahi ere, plan estrategikoko adierazleek bat etorri beharko dute Jaurlaritzaren kudeaketa-adierazleen sistemarekin.

Aipaturiko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren edukitik abiatuta, sail sustatzaileen lana orientatzeko, aipaturiko edukietan sakondu nahi da dokumentu honen bidez.

1.- Sarrera: plan estrategikoak ase beharreko premien deskribapena eta Gobernu Programan definitutako ardatz, konpromiso eta helburuekin duen lotura.

Atal honetan plangintza estrategikoaren misioa identifikatu behar da, hau da, plan estrategikoak ase beharreko premiak. Premia horiek epe ertain edo luzeko ikuspegiari erantzun behar diote.

Beharrak identifikatzeko, hainbat iturri erabili behar dira; horien artean, aurreko plangintzaren ebaluazioa (bai erreferentzia-eremuan, bai eremu konkomitanteetan) saihestezina da. Sarrerako zati honetan, premien hautaketaren oinarri diren funtsezko iturriak zehaztea komeni da.

Bestalde, xedek lotuta egon behar du GParen konpromisoekin eta ekimenekin (bai eta haren printzipioekin eta helburuekin ere). Horri dagokionez, atal honetan, antzemandako premiei erantzuten dieten GParen konpromisoak eta ekimenak zehaztu behar dira. Era berean, hala badagokio, identifikatutako premiei lotutako eskuduntzak dituzten beste erakunde batzuen parte-hartzea aipatu beharko litzateke.

Horrez gain, atal honetan ikuspegia jaso daiteke, garatu beharreko jarduerak osorik edo zati batean bultzatuta, epe ertain edo luzerako zer aurreikusten den adierazteko. Ikuspegi horren erreferenteak GPan jasotako helburuak izan behar dira; horien artean, herri helburutzat jo direnak nabarmentzen dira. Halaber, erreferentetzat har daitezke, besteak beste, erakundeen deklarazio edo adierazpen programatikoak, Gobernu kideek Legebiltzarrean emandako diskurtsoak edo Legebiltzarrak hartutako erabakiak.

Bestalde, gobernu-jardueraren helburu estrategikoak erreferentziatzat hartuta, egoki litzateke identifikatzea zer beste helburu (bereziki, herri-helburu gisa hartuta daudenak) nabarmen bultzatzea daitezkeen gobernuaren jardura helburu nagusian sustatzean (adibidez, enplegurako neurrien plangintzak eragina du gizarte-gaien, langileen osasunaren edo beste arlo batzuen helburuak lortzean).

2.- Egoeraren diagnostikoa: egoeraren deskribapena eta bilakaeraren ikuspegia, unera arte implementatutako politika publikoaren ebaluaziotik abiatuta.

Egoeraren diagnostikoak testuinguru sozial orokorra eta espezifikoa jorratuko ditu.

Testuinguru sozial orokorrak kanpoko joerak jasoko ditu eta Euskaditik kanpoko ingurunearen errealitatearen ikuspegia integratuko du.

Gizarte-testuinguru espezifikoak honako hau jasoko du:

- Aurretik egindako plangintzaren edo jardueren ebaluazioaren emaitzen alderdirik garrantzitsuenak kontuan hartzea eta azaltzea, bai erreferentzia-eremuan, bai eremu konkomitanteetan, kasuan kasuko plangintza-eremuarekin lotura baitute.
- Dauden edo praktikan jarri diren baliabideak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak plangintzaren erreferentzia-eremuei erantzuteko zer bitarteko eta baliabide izan dituen jakin behar da. Euskadiko erakunde-egitura kontuan hartuta, baliabide propioez gain, kontuan hartu beharko dira (hurrengo atalean eskaintzen den eskumen-esparruarekin bat etorritik) Udal- eta Foru Administrazioak eta, hala badagokio, Estatukoak sostengatu eta eskainitako bitartekoak eta baliabideak.
- Gizarte-pertzepzioa ezagutzeko eta herritarren eta agente kualifikatuen parte-hartzea errazteko tresnak, bai eta diagnostikoa eta planean jasotako neurriak formulatzean izan duen eragina ere.

Testuinguru sozial orokor eta espezifikotik abiatuta, egoeraren bilakaerari buruzko ikuspegia emango da, gobernuaren jarduna kontuan hartu gabe.

3) Egiturazko edukia: printzipioak. Helburuak eta ardatz estrategikoak.

Erakundeak denbora-tarte jakin batean lortu nahi dituen helburu edo xede nagusiak dira helburu estrategikoak. Helburu estrategiko horiek erreferentetzat hartzen dute dagokion arloan GPan jasotako edo ondorioztatutako helburuak; horien artean, herri-helburutzat jotzen diren helburuak nabarmentzen dira. Helburu horiek argiak, koherenteak, neurgarriak eta lorgarriak izan behar dute, gero jarduketak kategorizatzea zailtzen duten anbiguotasunak edo mota askotariko interpretazioak saihesteko. Helburu estrategikoek adierazle bat edo batzuk jaso behar dituzte, ahal dela inpaktuari buruzkoak, edo, bestela, emaitzari buruzkoak, neurtzeko aukera ematen dutenak.

Ardatz estrategikoak dira, Planaren helburu estrategikoak lortzeari begira, bertan jasotako jardun publikoa egituratzeko funtsezko eremuak. Ardatz estrategikoak, ezarri beharreko jardun publikoa antolatzeaz gain, identifikatutako beharrei aurre egiteko jarduketak sistematizatzeko oinarrizko hezurdura edo egitura izango dira.

Planaren helburu estrategikoekin lotutako ardatz estrategikoez gain, ardatz bakoitzaren edukiak jarduera-ildoetan antolatu behar dira, ardatz bakoitzean egin beharreko administrazio-jarduketan tipologiari erreparatuta (arauemailea, pizgarri edo sustapenekoa, erakundeen arteko koordinaziokoa, beste eragile batzuekiko lankidetzakoa, etab.). Jarduera-ildoek dagozkien helburuak eta adierazleak izan ditzakete, eta horien izaera jarduera-ildoen deskribapenaren arabera izango da.

4) Garatu beharreko jarduketak: ezarritako helburuak betetzeko garatu beharreko ekintzak eta ekimenak islatzea.

Identifikatutako beharrei buruz definitutako helburuak betetzeko ekintzen katalogo osoa jaso behar da, GParen konpromisoekin eta ekimenekin koherentziaz (baina ez nahitaez egitura horri jarraituz). Azaldu den bezala, ekintzen katalogoa proposatutako ardatz estrategikoen arabera egituratuko da. Barnean, ardatz bakoitzean, sistematikak, hala badagokio, zehazten diren jarduera-ildoei jarraituko die.

Ekintzen deskribapenean honako eduki hauek jasoko dira:

- Objektua eta helburua
- Beharreko baliabideak ekintza horiek eraginkortasunez gauzatzeko, eskura dauden zein jarduera garatzen den eremuari esleitutako gainerako giza baliabide eta baliabide materialetara egokituta. Plangintza egiteko unean ezinezkoa bada ekintza bakoitzak eskatzen dituen baliabideen aurreikuspen banakatua egitea, gutxienez, ezarri beharko da jarduera-ildoan edo ardatz estrategikoen mailari dagokion aurreikuspena.
- Plana gauzatzeko ardura izango duen organoa, edo organoak, zehaztea, tartean den saila eta erakundea adierazita.
- Ekintza gauzatzeko epea (egutegia koherentea izango da aurrekontu-programazioarekin)
- Jardueren edo emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleen deskribapena.

Jarduketan zerrendan sartu behar dira, dagokion planak lortu nahi dituen helburuetan eragin zuzena eta berehalakoa izanik, Planaren buru den sailez besteko sailek kudeatzen dituzten jarduketak. Aurrekoarekin bat etorritz, ezinbestekoa da inplikaturako sailek parte hartzea plana egiteko fasetik bertatik.

5.- Plangintza ekonomikoa: plana gauzatzeari lotutako baliabide ekonomikoen agertokia, indarrean egongo den aldian.

Plangintza oso lotuta dago dauden baliabideen eskuragarritasunarekin eta optimizazioarekin. Baliabide ekonomikoak (eta, hertsiki, baliabide ekonomikoen existentziarekin lotutako giza baliabideen eta gainerako baliabide materialen eskuragarritasuna) dira politika publikoei ekiteko baldintzatzaile nagusia (begi-bistakoa da baliabide ekonomikoak mugagabeak balira plangintzak galdu egingo lukeela bere zentzuaren zati handi bat)

Beraz, ezinbestekoa da planari lotutako baliabide ekonomikoak identifikatzea. Aurreko atalean adierazi den bezala, dagokion aurreikuspena ezarri behar da gutxienez ardatz estrategikoen edo jarduera-ildoan mailan eta, ahal bada, ekintza-mailan.

Kontuan hartuta aurrekontu publikoen ohiko zikloa (urte naturalarekin bat datorren aurrekontu-ekitaldira mugatuta) eta planen izaera etorkizunerako aurreikuspen gisa, baliabide jakin batzuk etorkizuneko ekintza zehatzetara ainguratzea ahalbidetzen duten aurrekontu-tresnak ezarri ez diren heinean, Planaren edukiek borondate politikoari eusten diote, batetik, arazo bati aurre egiteko eta, bestetik, ekintza horietarako baliabide-kopuru zehatz bat konprometitzeko borondatea adierazteko.

Edonola ere, Planean jasotako aurreikuspen ekonomikoek ez dute oinarri izan behar aurrekontuz kanpoko baliabideak eskatzeko.

Bestalde, sustatzaileaz besteko sailei dagozkien baliabideak aintzat hartzeko, ezinbestekoa da haiekin hala adostu izana edo lege-mailako arau bidez xedatuta egotea, eta, nolahi ere, sail sustatzaileak beretzat aurreikusten dituenetik bereizi behar dira.

Azkenik, beste erakunde batzuen baliabideak berezita jaso beharko dira, eta guztizko zenbatekoan sartu beharko dira bakarrik dagokion tresna formalaren bidez dagoeneko konprometituta daudenean.

6) Erakunde-harremanaren eskema: bai hura garatzen parte hartzen duten beste sail eta administrazio publiko batzuekin, bai eragile ekonomiko eta sozialek parte hartzeko formulekin

Atal hau inguruneko gainerako subjektuekiko harreman-esparruari buruzkoa da, bai eta jarrerak trukatzeko, desberdintasunak edo gatazkak konpontzeko eta proposatzen diren jardueren eragina indartzeko formulak adosteko elkarrizketa arina ahalbidetuko duten bideak zehazteko eta antolatzeke beharrari buruzkoa ere.

Aurrekoaren harira, berezi egin behar da, alde batetik, "Erakundeen arteko erlazio" gisa identifikatutako eremu publikoa, eta, bestetik, elkarreragiteko gainerako subjektuak, oro har, eragile sozial eta ekonomikoak eta gainerako herritarrak.

Era berean, eremu publikoan, barne- eta kanpo-eremuak berezi behar dira. Lehenengoa EAEko Administrazio Publikoko organoen arteko harreman-esparruari buruzkoa da, eta, bigarrena, gainerako administrazio publikoekiko harreman-esparruari buruzkoa.

Horrenbestez, honako hiru maila hauek berezi behar dira:

a) Barneko erakunde-maila

Barne-mailan, organo zehatzak identifikatu behar dira dagokion legegintzaldiko "arloei" buruzko dekretuaren eta sailtako "egitura organikoari" buruzko dekretuen bidez. Hala eta guztiz ere, ez da organo horiekin banan-banan tratatzea proposatzen; aitzitik, inplikaturako jardun-eremu handiak identifikatuta, sakondu beharko da dauden, edo beste plangintza batzuek aurreikusten dituzten, topaketa-organoa posibleen ezagutzan, sailen arteko harremana errazteko beharrezkoak ez diren egitura berriak sortzea saihesteko. Egoera faktikoaren ezagutzatik abiatuta, planak aldaketak egin ditzake dauden organoetan, organo horiek optimizatzen laguntzeko.

Horrela, organoek ezar ditzaketen banakako harremanei kalterik egin gabe, gainerako sailek politika zehatz horretan duten inplikazioaren ezagutzan aurrera egin ondoren, egokitzat jo daiteke sailtako arduradunen arteko bateratze saioak egitea, hala eskatzen duten alderdi zehatzak doitzeko eta egokitzeko.

Barne-eremuaren barruan, Administrazio instituzionaleko gainerako erakundeen tratamenduan sakondu beharko litzateke, baita beste sail batzuei lotutako Euskal Sektore Publikoko gainerako subjektuen tratamenduan ere. Alde horretatik, kontuan hartuta erakunde horien gobernu-organoen erantzukizun handiak dituztela sailtako arduradunek berek, ulertzen da, hasiera batean, horiekiko harremanak beste erakunde horien funtzioen eremua ere jaso beharko lukeela.

b) Kanpoko erakunde-maila

Era berean, erakundeen arteko harremanetan, beharrezkoak ez diren egitura berriak sortzea saihestu behar da. Hala, organoek ezar ditzaketen banakako harremanak alde batera utzi gabe, komeni da dauden egituretara jotzea. Edonola ere, ahalmenen eremuari dagokionez mugaren bat dagoela ikusita, Planak berak dauden organoetan aldaketak jaso ditzake, organo horiek optimizatzen lagun ditzaketenak.

c) Eragile ekonomiko eta sozialen mailan

Begien bistakoa da herritarrak eta haien bizi-baldintzak hobetzea dela egungo erakunde-sarearen eta botere publikoen jardueraren helburua.

Herritarren bizi-baldintzak hobetzeko sistema demokratikoaren bertutearen premisatik abiatuta, kontuan hartu behar da kontzeptu horrek interpretazio eta praktikan jartzeko modu ugari biltzen dituela.

Erakundeen izaera demokratikoa herritarrek aintzatestea indartzeko kezka ekarri du herritarrek gai publikoetan parte-hartze zuzenagoa eta zabalagoa bultzatu beharri buruzko hausnarketa. Gogoeta hori "governantza publikoaren" kontzeptuaren inguruan garatzen ari da.

Aurrekoaren harira, agerian geratu behar da eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea baliagarria izan daitekeela beste ikuspegi bat, bestelakoa eta askotarikoa, emateko, plana egiteko fasetik aberastu dezakeena. Era berean, eragile publiko eta pribatuekiko harremana beharrezkoa da plangintzak eta haren esparruan lantzen diren neurriek eguneratuta jarrai dezaten eta, horrela, inguruabarren bilakaerari egokitututako politika publikoen jarduna ahalik eta dinamismo handienarekin jasotzea.

Horregatik, alde batetik, eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea plana formulatzeko fasetik ezarri behar da. Bestetik, planak jaso behar ditu eragile ekonomiko eta sozialek parte hartzeko mekanismoak planaren exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan.

7. Governantza-eredua: barne-antolaketa eta giza baliabideen eta baliabide materialen zenbatespena.

Planak bere kudeaketaren organigrama jaso behar du, eta berekin dakarren fase bakoitzaren organo arduradunak identifikatu behar ditu.

Kontuan hartuta planak ibilbide luzea duela organo eskudunak onartu aurretik, adierazi behar da zein organok eta zein neurritan heldu dioten aurreko fase eta jarduketa bakoitzari.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, Planaren kudeaketa-ereduak ardura horien esleipena jaso behar du, onartu ondoren bere aurreikuspenen arabera ezar dadin, planifikatutako aldiaren zehar parte-hartzea eta jarraipena barne, bai eta emaitzen ebaluazioa eta zabalpena ere.

Planaren kudeaketa-eredua taxutzean, kontuan hartu behar da planaren buru den sailaren egiturari buruzko dekretuan eta inplikaturako gainerako sailen egiturari buruzko dekretuan jasotzen den funtzio-banaketa. Arau juridikoak direnez, horiek kontuan hartzea nahitaezkoa eta xedaezina da Planaren sustatzaileentzat; era berean, kontuan hartu behar da badaudela buru anitzeko organoak gero eta gehiagotan zenbait planen jarraipenari lotutako, gutxi gorabehera, berriazko eginkizunak dituztenak (horregatik, jarraipenari edo ebaluazioari buruzko informazioa jasotzeko betebeharra, horri buruzko iritzia eman dezaten).

Sailek planaren helburuak arin eta eraginkortasunez lortzeko duten borondatea bat etorri behar da egon daitezkeen arau-aurreikuspenekin. Horretarako, aurreko atalean aurreratu den

bezala, egokitzat jotzen da Kudeaketa Eredua planteatzea, ahal dela, dauden egiturak oinarri hartuta.

Kontuan hartuta "Gobernu Planen" aurrean gaudela, beharrezkoa da kudeaketa-ereduak planifikatutako aldian zehar Gobernu Kontseiluaren esku-hartzea aurreikustea eta horri ahalmen handiagoak aitortzea, bai Plana onartzeari eta Legebiltzarrerara bidaltzeari buruzkoak, bai Planaren jarraipena eta ebaluazioa ezagutzeari buruzkoak, Gobernuaren konklusioak eta gomendioak barne. Halaber, Gobernu Kontseiluari dagozkion eskumenak esleitu behar zaizkio, horien edukiak nabarmen berrikusiz gero.

Gobernu Kontseilua kudeaketa-ereduan nahitaez egon behar denez, saileko titularrak ere parte hartu behar du, hari baitagokio planari buruzko gaiak goragoko organo horren aurrean aurkeztea.

Azkenik, ezin da alde batera utzi Administrazioaren egituratik kanpo dauden eta Jaurlaritzako sailek sustatutako planen prestakuntzan, dinamizazioan, idazketan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen duten eragileen presentzia.

Jarduera hori, oro har, kontratu publikoen bidez egituratzen da (nahiz eta unibertsitateek edo ingurune publikoko beste subjektu batzuek esku hartu duten kasu batzuetan lankidetz-formuletara jo den, hitzarmenen edo beste administrazio-bide batzuen bidez), eta Plan baten fase zehaztetara zein ia Plan osora hedatzen da.

Kanpoko eragile horien esku-hartzeak ez du esan nahi organo politikoei, oro har, dagokien plangintzaren erantzukizuna murriztu edo lausotu behar zaienik, ezta organo horiek dokumentu horien orientazio politikoa zehazten duten funtsezko jarraibideak edo oinarriak finkatu behar dituztenik ere; beraz, adituen aholkularitzaren edo jarduera materialen esparruan kokatu beharko da haien jarduera.

Hala, esku hartzen dutenean edo esku hartzea aurreikusten denean, kudeaketa ereduak onarpenaren aurreko faseetan gauzatu duten jarduerari buruzko aipamenak eta esleitzea aurreikusten direnak jasoko ditu, eta jarduera zuzenean zein administrazio-egituratan egingo duten izendatuko du.

8.- Jarraipen- eta ebaluazio-sistema: estrategiaren egokitasuna eta garatutako neurriak kontrastatu ahal izateko adierazle-sistema identifikatzea. Nolanahi ere, plan estrategikoko adierazleek bat etorri beharko dute Jaurlaritzaren kudeaketa-adierazleen sistemarekin.

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko akordioaren orientabideetan jasotzen den bezala, *planak adierazle homologagarrien sistema bat jasoko du, ezarritako politikaren emaitzen urteko ebaluazioa egiteko aukera emango duena, eta, haren funtsezko alderdiei dagokienez, Gobernu Programaren jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin bat etorriko direnak.*

Jaurlaritzaren adierazleen panela osatzen duten adierazle horien artean (ezinbesteko erreferentzia da), egitura-, sektore- eta hedapen-adierazleak bereizi behar ditugu. Adierazleen panel hori Lehendakaritza eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailek elkarlanean ezarri eta elikatu dute azken legegintzaldietan, sail bakoitzak izendatutako pertsonen bidez.

Bestalde, adierazleak kategoria hauetan sailka daitezke:

Egikaritze-adierazleak: politika edo programa baten jardueren gauzatze finantzarioa (egindako gastuak) eta fisikoa (aurrerapen-egoera) neurtzeko balio dute.

Emaitza-adierazleak: egindako jardueren ondorioz izandako emaitzak kuantifikatzeko balio dute, eta fisikoak eta monetarioak izan daitezke.

Eraginaren adierazleak: ebaluatutako programak helburu espezifiko eta globaletan eta xedebiztanlerian duen eragina neurtzen dute.

Pentsa dezagun, adibide gisa, enpresei dirulaguntzak emateko politika batean, enplegua sortzeari lotuta. Egikaritze-adierazleak dirulaguntzen deialdi bat edo batzuk gauzatzeari buruzko informazioa eman dezake; emaitza-adierazleak enpresei esleitutako guztizko zenbatekoa izan lezake oinarri, aurrekontuan jasotakoarekin edo aurreikusitakoarekin alderatuta; eta inpaktu-adierazleak langabe-kopuruaren igoerari edo jaitzierari egin liezaioke erreferentzia.

Bestalde, aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakiak aurreikusten du *Plan orok bere betetze-mailaren amaierako ebaluazio-txosten bat jaso beharko duela, bai eta, lau urtetik gorako iraupena duten planen kasuan, tarteko jarraipen-txostenak ere.*

Oro har, ebaluazioa defini daiteke modu zehatz eta ordenatuan lortutako informazioa behatzeko, neurtzeko, aztertzeko eta interpretatzeko prozesu gisa, esku-hartze publiko bat — dela arau, programa, plan edo politika— ezagutzera bideratuta dagoena, ebidentzietan oinarritutako balorazio-iritzi bat lortzeko, haren diseinuari, abian jartzeari, ondorioei, emaitzei eta inpaktuei dagokienez. Balorazio-iritzi horren bidez, aztertzen den errealitatea islatzen da, eta aurrerapenak proposatzen dira, datuen deskribapen edo neurketa hutsa gaindituz.

Ikuspegi materialetik, politika publikoen ebaluazioaren inguruan finkatuta dagoen kontzepzioaren arabera, ebaluazio-jardueratik sortutako ezagutza ez da, berez, emaitza edo amaiera ("azken etapa"), baizik eta administrazio publikoen jarduera-zikloa berrabiarazteko oinarria (premia bat hautematea, ingurunea ezagutzea, neurriei buruzko erabakia hartzea eta horiek gauzatzea).

Ezagutza hori, Administrazio Publikoaren esparruan hartutako eta ezarritako neurrien efikaziari, efizientziari eta inpaktuari buruzko ikuspegia emateaz gain, gero eta oinarri garrantzitsuago gisa finkatzen ari da, kudeatzen dutenek etorkizuneko erabakiak har ditzaten, asmatutakoei eta gaizki egindakoei dagokienez ikasitakoa politika publikoen ziklo iraunkor batean txertatuz, eta kudeaketa publikoaren gardentasun handiagoa bultzatuz, aukera emanez politikei buruzko emaitzak modu ordenatuan eta baloratuan kolektibo eta pertsona interesdunen eskura jartzeko.

Hala, bada, ebaluazio-jarduerak helburu hauek ditu:

1) Administrazio publikoen erabakietan, konfigurazioan eta kudeaketan arduradunei informazio egokia ematea, garatutako politika publikoetan aldaketak sartzeko, aurrez definitutako helburuak lortzeko.

2) Eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek, oro har, hartutako konpromisoen betetze-mailari eta botere publikoek egindako lanean sortutako itzaropenei buruzko iritzia eta ezagutza jasotzeko aukera ematea.

Normalean aldi berean edo elementu osagarri gisa tratatzen badira ere, ebaluazioa eta jarraipena bereizi behar dira.

Jakina denez, jarraipenari esleitzen zaio esku-hartze baten garapenari eta aplikazioari buruzko informazioa sistematikoki biltzea. Datuak biltzeko prozesu jarraitua eta sistematikoa da, egindakoa eta horren emaitzak egiaztatzeko, bai fisikoki bai finantzarioki. Jardueren programazioaz arduratzen diren barne-kudeatzaileek egin behar duten jarraipen horrek ebaluazioa egin ahal izateko behar diren datuak eta informazioa ematen ditu.